



NAFARROA. Ezkabako ihesaldian hildakoen zenbait gorpuzki aurkitu dituzte azken urteotan. I. PORTO / EFE

# Ezkabako ihesaren ostean hildako preso baten gorpua identifikatu dute

→ Eliako hobian zegoen Segundo Hernandez; 1938an hil zuten frankistek, beste bi presorekin batera.

**Xabier Martin**

Segundo Hernandez Blancok 19 urte zituen faxistek hil zutean; Eguesibar inguruan izan zen, Nafarroan. Ezkabako ihesean hango gotorlekua atzean uztea lortu zuen Gasteizko preso gazteak; CNTko militantea zen, iturri batzuen arabera, eta 1936ko uztailearen 24an atxilotu zuten

matxino frankistek, beste zenbait gazterekin batera. Gasteiztik ihesean zihoan, Otxandiorako bidean. Baina ez zen iritsi Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean zegoen Bizkaiko eremura.

Nafarroako Gobernuak DNA Bankuak gaztearen gorpuzkiak aurkitu ditu orain, Antsoingo Elia hobian. Hernandezen askatasunerako bidaia etsia 1938an bukatu zen, Ezkabako ihesaldi masiboan hango gotorlekua atzean utzi eta gero; atzeman, eta ihesaldiko beste bi kiderekin batera hil zuten falangistek.

Bi urte lehenago, 1936ko abuztuaren 8an, hogeituroko kartzela zigorra ezarri zion epaitegi frankista batek, eta Gasteizko kartzelara sartu, 1937ko urtarrilera arte.

## Gasteizko azken armarri frankista kenduko dute

● Gasteizko Olagibel eraikinetako batean, frankismoaren armarri bat ikus daiteke. Bihar ez da izango han, kendu egingo baitute. Eraikinean zaharberritze lanetan dabilta, eta lehendik ere jarrita dagoen aldamioa prest dago ikur hori kentzeko. Haren lekuan ez dute ezer jarriko. Beste ikur frankista bat geratuko da Gasteizen, Maria Sortzez Garbiaren katedralaren barruan, baina hark urteak daramatza estalita oihal batekin.

Hil horretan, Antsoingo Ezkaba mendiko gotorlekura lekualdatu zuten. Segundoren aita Joaquín Hernandez, berriz, hilabete batzuk lehenago hil zuten frankistek, abenduaren 14an. Familia lehertu egin zuten hilabete gutxiko tarte batean.

## Hiruko taldearen amaiera

2015ean, indusketa lanak hasi zituzten Eliako hobian, Eguesibarko Udalak sustaturik, eta hiru gorpuzki aurkitu zituzten orduan Aranzadiko adituek. Bidankozeko (Nafarroa) Vicente Mainz Landa identifikatu zuten hasieran, eta hipotesi bat marraztu zuten ikerlariek, Mainzen jatorria aintzat hartuta: hiruko taldetxo hori Ezkabatik ihes egindako preso gehienen bidetik aldendu zen, Mainzek eremu hori ondo ezagutzen zuela aprobetxatuz. Alabaina, Falangeko pelotoi bat atzean zuen hirukoak, eta, azkeneko, harrapatu egin zituzten, eta bertan hil. Eliako hobian lurperatu zituzten gazteak.

Orain egin duten identifikazioa, Hernandezen senitarteko batek emandako lagin genetikoari esker izan da, eta, beraz, Ezkabako ihesaren ondoren eraildako bederatzita pertsona identifikatu dituzte jadanik; Nafarroako DNA Bankua sortu zutenetik, 43 pertsona identifikatu dituzte hobietan, eta erakundeak Frankistek desagerrarazitakoen senitartekoaren laguntza eskatu du, bankuan lagin genetiko gehiago edukitzeko, eta, horien bidez, identifikazio gehiago egin ahal izateko Nafarroa osoan.

1938ko maiatzaren 22ko arratsaldean, igandean, 795 presok ihes egin zuten Ezkabako gotorlekutik. 2.500 preso inguru zituzten han frankistek, gehien-gehienak arrazoi politikoengatik. Iheslarien atzetik abiatu ziren faxistak, eta haietatik 206 hil zituzten. Atzemandakoen artean, berriz, antolatzailetzat jo zituzten hamalau, eta abuztuaren erail zituzten horiek ere. Soilik hiru iheslarik lortu zuten muga gurutzatu eta Ipar Euskal Herrira iristea. ●